



EMAITZAK

2025eko URTARRILA-IRAILA

LEGE OHARRA

DOKUMENTU HAU INFORMAZIOA EMATEKO HELBURUAREKIN BAKARRIK PRESTATU DA

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitortzen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko azalpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduaren berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu, arriskuak eta gorabeherak izan baititzaizkete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daitezke emaitza errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsiotarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta aldez aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eksklusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek aldez aurretik idatzizko baimena eman gabe.

AURKIBIDEA

1/ 2025eko 9Hko DATU AIPAGARRIENAK	4
2/ FINANTZA INFORMAZIOA	9
3/ JASANGARRITASUNA	13
4/ AURREIKUSPENAK	15
5/ ERANSKINAK	17

1/ 2025eko 9Hko DATU AIPAGARRIENAK

1.1 MAGNITUDE NAGUSIAK

ADIERAZLE SENDOAK, ONURA GARBIAK IZANDAKO GORAKADA ESANGURATSUAREN ISLA

Kontratazioa

4.049 M€
+% 80
 vs 2024ko 9H

EBIT

161 M€
+% 18
 vs 2024ko 9H

Jasangarritasuna

S&P
66/100
Ehuneko
+6 puntu
 vs FY2024

Zorroa

15.579 M€
+% 6
 vs 2024/12/31

EBIT mj

% 5,1
Ehuneko +0,4
puntu
 vs 2024ko 9H

Ecovadis
80/100
Ehuneko
+1 puntu
 vs FY2024

Salmentak

3.165 M€
+% 8
 vs 2024ko 9H

Emaizta garbi egozgarria

100 M€
+% 66
 vs 2024ko 9H

/ Funtsezko segmentu eta geografiatan izandako kaptazio handiari esker, zorroa maximo historikotan dago.

/ Salmenten hedapena, negozioaren dinamismoak bultzatuta.


/ Errentagarritasunaren ibilbide positiboa.

/ Hobekuntza jasangarritasuneko agentzien balorazioan.

1.2 KONTRATAZIOA

KAPTAZIO HANDIA FUNTSEZKO GEOGRAFIA ETA SEGMENTUETAN

GUZTIRA (M€)



Trenak	1.531	2.442
Autobusak	714	1.607


- Jasotako kaptazio horrez gain, **pipelineko aukera komertzialak sendoak izaten jarraitzen dute.**

*Pipelineko proiektuetako bat **intercity** trenak Belgikako **SNCB** operadoreari hornitzearekin lotuta dago. Hain zuzen ere, **2025eko uztailaren 23an, SNCBren Administrazio Kontseiluak **preferred bidder** gisa berretsi zuen CAF.***

KONTRATAZIOAREN BANAKETA, JARDUERA LERROAREN ARABERA (%)

2025eko 9H


- Tren-ibilgailuak
- Zerbitzuak
- Autobusak
- Soluzio integralak eta sistemak



KONTRATAZIOAREN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA (%)

2025eko 9H

- Espainia
- Europako gainerako herrialdeak
- Amerika
- APAC eta munduko gainerako tokiak



/ **Btb=1,3** Talde osoan, 2025eko 9Han.

Btb=1,0 trenen segmentuan

Btb=2,2 autobusen segmentuan

/ 2025eko 3HHko kontratazioan honako hauek daude sartuta (besteak beste):

- Tranbien hornikuntza Grenoblerako (Frantzia)
- Coradia Polyvalent eskualdeko trenen hornikuntza Bourgogne-Franche-Comté eskualderako
- Autobus elektrikoen bolumen handiaren hornikuntza Suedia eta Poloniarako

/ **Solarisen arrakasta komertzialak aurrera jarraitzen du,** kontratazioek unitateen kopuru handia (2.184) biltzen dutelarik eta mixa, batez ere, zero isuriko gamakoa delarik (guztizkoarekiko % 83koa).

/ Kontratazioaren % 72 Europan kokatuta dago, CAFentzat **funtsezkoak diren merkatuetan.**

1.2 KONTRATAZIOA

KONTRATU BERRIAK FRANTZIAN, POLONIAN ETA SUEDIAN

/ 2025eko 3HHan iragarri eta sinatutako kontratazio nagusiak



GRENOBLERAKO (FRANTZIA)
TRANBIAK

- Akordioa sinatu da Syndicat Mixte des Mobilités de L'Aire Grenobloise – SMMAGekin 38 Urbos tranbia hornitzeko.
- Tranbiak CAFek Bagnères-de-Bigorren (Frantzia) duen lantegian fabrikatuko dira.
- **Kontratuak** gehienez beste 9 tranbiarekin **handitzeko aukera jasotzen** du.



CORADIA **ESKUALDEKO TRENAK** (FRANTZIA)

- **Coradia Polyvalent plataformako** eskualdeko 14 tren, zehatzago esanda, honako hauek:
 - Seina kotxeko 5 Intercité tren.
 - 4 kotxeko 9 TER bi-modo tren.
- Trenek Bourgogne-Franche-Comté eskualdean eskainiko dute zerbitzua eta **CAFek Reichshoffenen** (Alsazia) duen **lantegian diseinatu eta fabrikatuko** dira.



AUTOBUS ELEKTRIKOAK
GDANSK ETA VARSOVIARAKO
(POLONIA)

- MZA Varsoviarekin sinatutako akordioak 79 autobus elektrikoren hornikuntza biltzen du. Horietatik:
 - 50 ibilgailu 18 metroko Urbino autobus artikulatu elektrikoak dira.
 - Haietako 29 12 metroko Urbino autobus elektrikoak dira.
- Kontratuak, gainera, beste 79 ibilgailu **erosteko aukera jasotzen** du.
- Gdansk hiriarekin adostutako akordioak 30 autobus elektriko biltzen ditu. Horietatik:
 - 18 ibilgailu 12 metroko autobusak dira.
 - 12 ibilgailu 18 metroko autobus artikulatuak dira.
- Guztizko balioa 80 M€ baino gehiagokoa da.



AUTOBUS ELEKTRIKOAK
NOBINARAKO (SUEDIA)


- Luzera ezberdinetako (12, 15, 18 eta 24 metrokoak) Solarisen 180 autobus elektrikoren hornikuntza.
- Solarisek bere historian zehar eskualde hartan lortutako autobus elektrikoen **eskari handienetako bat** da.
- Azken urteotan **Solarisen eta Nobinaren artean izandako lankidetzaz luze eta arrakastatsuan** lortutako beste mugarri bat.
- Eragiketaren balioa **150 M€** ingurukoa da.

1.3 ESKARIEN ZORROA

ESKARI ZORROA MAXIMO HISTORIKOTAN MANTENTZEN DA

GUZTIRA (M€)

Autobusak
Trenak



Zorroa / Salmentak ratioa ¹	3,5x	3,7x
Autobusak	1,6x	2,5x
Trenak	4,0x	4,0x

/ % 6ko gorakada zorroan.

/ **Solarisen zorroak balio historikoa** izan du bolumenean (2.317 M€) eta unitate kopuruan (2.759), eta horrek ikusgarritasun handia eman dio hurrengo aldietan negozioak izango duen mixaren hazkunde- eta progresio-bideari.

/ Zorro honek **ez ditu barne hartzen** jarraian azaltzen diren **2025eko 3HHko eta 4HHko esleipenak**. Horien **guztizko balioa 600 M€ ingurukoa da**:

- Kairoko metrorako birgaitzea eta mantentzea (Egipto)
- Herbehereetarako eta Poloniarako autobus elektrikoen hornidura

/ Zorro horrek **ere ez du barne hartzen bezeroek etorkizunean gauza ditzaketen aukeren bolumen handia**. Aukera horiek trenen segmentuan zein autobusen segmentuan zorroan sartuta dauden kontratuei lotuta daude (>9.000 M€).

¹ 2025/09/30eko ratioa, 2024an izandako salmenten arabera kalkulatuta.

2/ FINANTZA INFORMAZIOA

2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA

SALMENTEN ETA IRABAZIEN HAZKUNDEAREKIN BATERA, ERAGIKETA-ERRENTAGARRITASUNAREN BILAKAERA POSITIBOA

/ Emaizta finantzarioaren eta eragin fiskalaren hobekuntzak positiboki eragiten diote emaitza garbiari

(milioi eurotan)	2024ko 9H ¹	2025eko 9H ¹	Ald. 2025eko 9H/2024ko 9H ¹
NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	2.918	3.165	+% 8
USTIAPENAREN EMAITZA - EBIT	137	161	+% 18
EBIT Marjinaren %	% 4,7	% 5,1	
Finantza arloko emaitza	(36)	(26)	-% 28
Finantza-sarrerak	20	15	-% 27
Finantza-gastuak	(48)	(37)	-% 23
Trukeko edo kanbioko aldeak	(7)	(3)	
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	(1)	(1)	
Partaidetza-metodoaren arabera baloratutako erakundeen emaitza	(1)	9	
ZERGEN AURREKO EMAITZA	100	145	+% 44
Irabazien gaineko zerga	(36)	(40)	+% 12
Zergen ondorengo emaitza garbia	64	104	+% 63
Interes minoritarioak	3,7	4,1	+% 11
ERAKUNDE KONTROLATZAILEARI EGOTZITAKO EMAITZA	61	100	+% 66

/ **Salmenta bateratuek** % 8 egin dute **gora** urte arteko tasan.

/ Ustiapen-emaizta % 18 igo da jardueraren hazkundeari eta **marjina bateratuaren bilakaerari** esker (ehuneko +0,4 puntu).

/ Finantza-gastuaren jaitsierak eta dibisen inpaktu txikiagoak **finantza-emaizta** % 28 **hobetu** dute.

/ **Eratortako zerga tasa gutxitu egin da**, aurrez ikusitakoaren arabera.


/ Horren guztiaren ondorioz, **esleitutako emaitza garbia 100 M€-koa izan da 2025eko 9Han**. Zifra hori aurreko urteko aldi berekoa baino **% 66 handiagoa** da.

¹ Milioi eurotara biribildutako zifra absolutuak. Urte arteko aldakuntza, zifra absolutu zehatzak kontuan hartuta, biribildu gabe.

2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA

BI NEGOZIOEN DINAMISMOAK ALDI HONETAKO SALMENTAK BULTZATU DITU

/ Solarisen hazkunde handia nabarmendu behar da. Entregak ugaritu izanaren eta balio handiagoko autobusetan arreta jarri izanaren ondorioa da.




2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA


EMAITZEN ETA ERRENTAGARRITASUNAREN BILAKAERA POSITIBOA. ALDI HORRETAKO IRABAZI GARBIA 100 M€-KOA IZAN DA.

EMAITZA

EBITa (M€) eta EBIT marjina (%)



INTERES MINORITARIOEN OSTEKO EMAITZA GARBIA (M €)



/ Emaita operatiboa salmenten gaintetik hazi da eta 161 M€-ra iritsi da. **EBIT marjina** ehuneko 0,4 puntu **hedatu** da urte arteko datuei dagokienez.

/ **Emaita garbiak bilakaera adierazgarria izan du eta % 66 egin du gora**, 100 M€ arte.

Segmentuka:

Trenak

Bilakaera positiboa, nahiz eta oraindik ere gauzatzen ari diren tren-hornidurako zenbait proiektutan inflazioaren ondoriozko kostu-igoerek eragina izan.

Autobusak

Errentagarritasunaren bilakaera. 2025eko 4HHrako aurrez ikusitako entregen kopuru handia dela eta, joera horrek urteko azken tartean aurrera jarraituko duela espero da.

3/ JASANGARRITASUNA

3. JASANGARRITASUNA

HOBEEKUNTZA JASANGARRITASUNEKO AGENTZIEN BALORAZIOAN

/ 2025eko 3HHko jarduera esanguratsuenak

INGURUMENEOA

- Urbino 10,5 autobus elektrikoak irabazi du “Sustainable Bus Award 2026” saria.

SOZIALA

- CAFek Jerusalemgo tren arinaren proiektuari buruzko **informazio garrantzitsua igorri dio CNMVri.**

GOBERNANTZA

- BEIk eta CAFek 80 milioi euroko mailegua **sinatu** dute mugikortasunaren sektorean berrikuntzan eta jasangarritasunean inbertitzeko.

/ 2025eko 9Hko emaitza nagusiak

S&P
66/100
Ehuneko
+6 puntu
 vs FY2024

Ecovadis
80/100
Ehuneko
+1 puntu
 vs FY2024



4/ AURREIKUSPENAK

4. AURREIKUSPENAK

2025 URTEA EKITALDI HASIERAN IRAGARRITAKO AURREIKUSPENAK BETEZ AMAITZEA AURREIKUSTEN DUGU

/ CAFek bere 2025erako aurreikuspenak mantentzen ditu

2025¹

Book-to-bill

≥1
Kontratazio
selektiboa

Salmentak

Bi digitutik gertu
dagoen hazkundera
vs 2024

EBITa / Eaitza garbia

Errentagarritasunaren
hobekuntza vs 2024

Dibidendua

Eaitzen
bilakaerarekin bat

FZG/EBITDA ratioa

Egonkortasuna
2024. urtearekiko

Jasangarritasuna

Isuriak gutxitu dira
jarduera handiagoko
egoeran

¹ Ikuspegi horiek baztertu egiten dute edozein eragiketa ez-organikoren balizko eragina, eta nazioarteko erakunde nagusien ikuspegi ekonomikoen egonkortasunaren hipotesi nagusian oinarritzen dira, bai eta gaur egungo gatazka geopolitikoetan ere.

5/ ERANSKINAK

5.1 KONTRATAZIOAREN XEHETASUNA

/ 2025eko urtarrila-iraila aldian iragarritako eta eskari-zorroan jasotako kontratuak

DATA	PROIEKTUA	HERRIALDEA	NEGOZIOA / JARDUERA	DESKRIBAPENA	MOTA	BEZEROA	AUKERA OSAGARRIAK	ZENBATEKOA (etorkizuneko aukerak kanpoan utzi dira)
2025 1HH	Intercity ONCF	Maroko	Trenak / Tren-ibilgailuak	30 Intercity trenen hornikuntza.	Oinarri-kontratua	Berria	Bai	600 M€ inguru
2025 1HH	Tours	Frantzia	Trenak / Tren-ibilgailuak	19 tranbia hornitzea	Oinarri-kontratua	Berria	Ez	-
2025 1HH	TransLink Vancouver	Kanada	Autobusak	107 trolebus hornitzea	Oinarri-kontratua	Berria	Bai; 12 m-ko beste 201 unitate, eta 18 m-ko 204 unitate artikulatu arte	120 M€ inguru
2025 1HH	MPK Poznan	Polonia	Autobusak	17 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	< 20 M€
2025 1HH	Nobina Sverige	Suedia	Autobusak	89 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	> 100 M€
2025 1HH	VR Sverige AB	Suedia	Autobusak	81 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	
2025 1HH	Northern	Erresuma Batua	Trenak / Zerbitzuak	10 urtez mantentze-zerbitzuak	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	400 M€ inguru
2025 2HH	Medellín	Kolonia	Trenak / Zerbitzuak	Mantentze-lanetako zerbitzuen eskaintza	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	
2025 2HH	New Taipei City	Taiwan	Trenak / Tren-ibilgailuak	23 tranbia arte hornitzea	Oinarri-kontratua	Berria	Bai	-
2025 2HH	MSP	Brasil	Trenak / Zerbitzuak	14 urtez mantentze-zerbitzuak	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	> 100 M€
2025 2HH	Auckland	Zeelanda Berria	Trenak / Zerbitzuak	5 urtez mantentze-zerbitzuak	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	
2025 2HH	BVG	Alemania	Autobusak	270 autobus elektrikoren hornidura	Luzapena	Berria ez	Bai	> 220 M€
2025 3HH	Coradia Polyvalent	Frantzia	Trenak / Tren-ibilgailuak	Eskualdeko 14 trenen hornikuntza	Luzapena	Berria ez	Bai	300 M€ inguru
2025 3HH	Grenoble	Frantzia	Trenak / Tren-ibilgailuak	38 tranbia hornitzea	Oinarri-kontratua	Berria	Bai, beste 9 tranbia	
2025 3HH	Nobina Sverige	Suedia	Autobusak	180 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	150 M€ inguru
2025 3HH	Varsovia	Polonia	Autobusak	79 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Bai, beste 79 autobus	> 80 M€
2025 3HH	Gdansk	Polonia	Autobusak	30 autobus elektrikoren hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria	Ez	

5.2 AGENDA

Hitzaldiak eta roadshow-ak

- **2025eko azaroaren 25a**
2025eko 9H ondorengo Roadshowa (Espainia)
- **2025eko azaroaren 26-27a**
2025eko 9H ondorengo Roadshowa (Milan eta Lugano)
- **2025eko abenduaren 2a**
European Industrials Conference (Londres)
- **2025eko abenduaren 10-11**
2025eko 9H ondorengo Roadshowa (Frankfurt eta Zurich)
- **2026ko urtarrilaren 8a**
Oddo BHF Conference (Lyon)
- **2026ko urtarrilaren 14a**
Spain Investor Day CEO Conference (Madril)
- **2026ko otsailaren 5a**
Iberian Conference (Madril)
- **2026ko martxoaren 3-4-5a**
Roadshow post FY 2025 (Madril, Paris, Londres)

Emaizten argitalpena

- **2026ko otsailaren 27a**
FY 2025eko emaitzen argitalpena



5.3 ERRENDIMENDUKO NEURRI ALTERNATIBOAK (MAR, gaztelaniaz)

Oro har onartutako kontularitzako araudiaren (NIIF) arabera prestatutako finantza-informazioaz gain, CAF Taldeak negozioaren kudeaketan modu errepikakorrean eta kontsistentean erabiltzen ditu Errendimenduko Neurri Alternatibo batzuk (“Alternative Performance Measures”, “APMs” ingelesez) bere jardueraren bilakaera azaltzeko lagungarriak direla uste duelako. Neurri horiek emaitzarekin, balantzearekin eta kuxaren fluxuarekin lotutako kontzeptuak jasotzen dituzte.

Dokumentu honetan erabili ditugun MAR guztien banakapena eta haien definizioa eta, dagokionean, finantza-egoerekiko bateratzea **2025eko Lehen Seihilekoko Txostenaren baitako Kudeaketa Txosten Bateratuan** dago jasota. Dokumentua CNMVren webgunean (www.cnmv.es) eta sozietatearen webgunean (www.cafmobility.com) dago irakurgai, 6. atalean - Errendimenduko Neurri Alternatiboak.



www.cafmobility.com



TRUST
IN MOTION